

Emakumeen euskal literatura ikuspegi feministatik - Mintegia



Euskal emakume idazleen lan garaikideak ikuspegi
feminista batetik irakurtzeko tailerra.

Kattalin Miner

19:00
+ 16 urte

Izen-ematea : Udal Liburutegian

Tailerrari buruz, Kattalin Minerren hitzak:

"Euskal eta zehazki euskarazko emakume idazleen lan garaikideak ikuspegi feminista batetik irakurtzeko tailerra izango da hau. Hala, azken urtean argitaratutako lanak irakurriko ditugu, egungo testuinguru eta bizipenetatik. Helburua da euskal emakume idazleak ezagutaraztea, eta egun garatzen ari diren kezka, diskurtso eta proposamenak denen artean hausnartzea eta horiek genero ikuspegi eta ikuspegi feminista batetik irakurtzea"

**Parte hartu nahi baduzu izena eman ezazu Udal iburutegian
Liburua behar izanez gero, bertan ere eska dezakezu.**

Kattalin Miner Perez¹ (Hernani, Gipuzkoa, 1988ko urriaren 9a) gipuzkoar kazetari, idazle eta ekintzaile feminista da.

Euskal Herriko Unibertsitatean Kazetaritzan lizentziaduna eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan Literatura Konparatuan masterduna da. Horrez gain, Gizon eta Emakumeen Berdintasuneko masterra egin zuen EHU. [1] 2015ean Igartza Saria irabazi zuen Kafe beteak izenburuko eleberri proiektuagatik, baina 2017an eleberria argitaratu zenean Nola heldu naiz ni honaino izenburua jaso zuen. [2] Euskal hedabideetan kolaborazioak egin izan ditu: Berriak[3] Naiz [4] eta Argian [5]bestea

Eleberrigintza

- *Nola heldu naiz ni honaino* (Elkar, 2017)[6]
- *MOIO gordetzea ezinezkoa zen* (Elkar, 2019)[7]

¹ Sarbidea: https://eu.wikipedia.org/wiki/Kattalin_Miner (2019/09/04)

Lau saio – Lau liburu

2019-09-17

Bihotz handiegia. Eider Rodriguez

Ez du batere gogorik senar ohia zaintzera joateko, baina alabak hala eskatu dio eta gizonari bizialdi laburra geratzen zaionez, ahalegin txiki bat egin behar luke agian. Liburu honi izenburua ematen dion kontakizun luzeena eta lehendabizikoa da “Bihotz handiegia”, garai baten amaierari buruz diharduena, maitasunaren hondakinez.

Arroztasun sentipena dute Eider Rodriguezen sei ipuinetako pertsonaiek: nolakoa izaten ari da bikote biritza hau, zein desio ote ditu auzokide perfektuak, nor bihurtu gara sute ikaragarriaren ondoren, ginekologoak erakutsiko al dit nolakoa naizen barrutik, zer espero zuten izango nintzela, norenak dira esku hauek.

Konplexuak eta arruntak dira aldi berean hemengo bizilagunak, jarrera ideologikoaren eta irrika eutsiezinen arteko lehian dabilzanak batzuetan, zalantzati edo kontraesanean, baina gorabehereri beti aurre egiten.



2019-10-15

Jenis Joplin. Uxue Alberdi



2010eko azken uda egunak dira. Astelehen goiza da, eta autoz Artxandara bidean doaz lau lagun. «Azkuna alkatea bezala, Bilbo gu gabe nola dagoen ikustera», dio Irantzu pertsonaiak atzeko jarlekutik. Libre irratiko kideak dira, eta agur bilkura dute Artxandan, egun horretan bertan irratia itxi eta atxilotuak izango direlakoan baitira. Horra Uxue Alberdiren (Elgoibar, Gipuzkoa, 1984) azken nobelaren lehen eszena. *Jenisjoplin* du izenburua, eta bigarren eleberria du. Idazle baten ibilbidean egilearen «maila eta onarpena igotzen duten liburuak» daudela aipatu du Gorka Arrese Susa argitaletxeko editoreak, eta Alberdiren obran *Jenisjoplin* hala dela dio berak .

2019-11-12

Amek ez dute. Katixa Agirre

Bi emakume, bi ama gazte: batek (Jade/Alice) bere ume bikiak hil ditu, bere eskuz baineran itota. Bestea, nobelaren narratzailea, bere haurraz erditzerakoan, bat-batean ohartu da ezagutzen duela ama hiltzaile hori, aspaldian haren berri izan ez badu ere; Jade/Alicerekin eta haren ekintzarekin obsesionatuta, gehiago jakitea erabakiko du, hartaz ikertzea eta horri guztiari buruzko eleberri bat idaztea.

Sorkuntza esaten diogu artista baten lanaren emaitzari; sorkuntza da halaber haur bat mundura ekartzean ama batek egiten duena. Bi sortze mota, bata bestearekin zerikusirik gabea, kontraesankorrak ere bai agian? Sormenaren bi alderdi horiek eta bien arteko harremanak arakatu ditu Katixa Agirrek bere bigarren nobela honetan, irrikaz irensten den fikzioa erakiz eta aldi berean gogoan luzaroan geratzen diren hausnarketekin aberastuz.



2019-12-17

Odol mamituak. Alaine Agirre



Infernurako joan-etorri bat da liburu hau, Miren Agur Meabek hitzaurrean dioen moduan: emakume baten gaixotze mentala, ospitale psikiatriko batean sartzea eta sendatze neketsua, bere gordinetan kontatuak, baina gogortasun horrekin batera samurtasuna eta umorea ere sartuz, tarteka. Indar handiko idazkera erakusten du Alaine Agirrek bere lehenengo eleberri honetan, protagonistak bizi dituen esperientzia muturrekoak irakurleari bere azalean sentiaraziz; aldi berean, ordea, poesiara hurbiltzen den hizkera eder, estilizatu bat erabiliz.

Antolatzailea: Hernaniko Udala. Liburutegia

